



2010/11 ETA 2024/25 DENBORALDIEN ARTEKO

OILAGOR EHIZAREN EMAITZAK GIPUZKOAN

2025EKO URRIA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. ZONIFIKAZIOA	4
3. EMAITZAK	6
3.1. EMAITZA OROKORRAK	6
3.2. EMAITZAK HILABETEA	9
3.3. ASTE EGUNEN ARABERAKO EMAITZAK	11
3.4. DATAREN ARABERAKO EMAITZAK	13
3.5. ZONAREN ARABERAKO EMAITZAK	16
4. LABURPENA ETA ONDORIOA	21
5. ITURRIAK	22
1. ERANSKINA . ARAUBIDE KOMUNeko ZONETAKO OILAGOR EHIZAREN EMAITZEN LABURPENA	23
2. ERANSKINA ARAUBIDE BEREZIKO ZONETAKO OILAGOR EHIZAREN EMAITZEN LABURPENA	30

Irudien aurkibidea

1. irudia.	Gipuzkoako oilagorraren ehiza harrapaketa-parte, oilagor txartela (goian aurrealdea, behean atzekaldea).	3
2. irudia.	Oilagorraren ehizarako araubide komuneko eta araubide bereziko eremuen kokapena Gipuzkoan.	4
3. irudia.	Ehiztari aktiboen eta ehiza jardunaldien kopuruaren bilakaera 2010 eta 2025 artean.	7
4. irudia.	Ehizatutako oilagor kopuruaren bilakaera 2010 eta 2025 artean.	8
5. irudia.	2010 eta 2025 artean, jardunaldiko ehizatutako oilagor kopuruaren bilakaera; eta ehiztari bakoitzeko eta denboraldiko ehizatutako oilagor kopuruaren bilakaera.	8
6. irudia.	2010 eta 2025 artean, ehiza araubide ezberdineko eremuetan (komun/berezi) jardunaldiko ehizatutako oilagor kopuruaren bilakaera.	9
7. irudia.	2010-2025 artean, ehiza jardunaldien eta ehizatutako oilagorren batezbesteko kopuruaren bilakaera, hilabeteka.	10
8. irudia.	2010-2025 artean, ehizatutako oilagorren batezbesteko kopurua, hilabeteka. Geziek hilabete bakoitzeko balio minimo eta maximoak adierazten dituzte.	10
9. irudia.	Aste bakoitzean ehizatutako oilagorren batezbesteko kopurua, denboraldi osoan ehizatzen denarekiko konparatuta. 2010 eta 2025 epeko datuak.	11
10. irudia.	2010-2025 artean, ehiza jardunaldien batezbesteko kopurua, asteko eguneko. Geziek egun bakoitzeko balio minimo eta maximoak adierazten dituzte.	12
11. irudia.	2010-2025 artean, ehizatutako oilagorren batezbesteko kopurua jardunaldiko, asteko egun bakoitzerako. Geziek egun bakoitzeko balio minimo eta maximoak adierazten dituzte.	12
12. irudia.	Ehiza-denboraldiko aste bakoitzean, jardunaldiko ehizatutako oilagor kopuruaren bilakaera, hotzaldiak alde batera utzita. 2010-2025 aldirako batezbestekoa adierazten da.	13
13. irudia.	Gorritz, jardunaldiko harrapatutako oilagor kopuruaren bilakaera denboraldi bakoitzeko astearen arabera, eta erregresio linealeko zuzena 2010-2025 azterketa-aldirako (marra gorri etena). Banda urdinetan, Gipuzkoan hotzaldiak gertatu diren asteak (iturria: AEMET, 2024).	15
14. irudia.	Araubide komuneko eremuetan (urdina) eta araubide bereziko eremuetan (gorria) denboraldi batean batezbeste egiten diren ehiza-jardunaldien kopurua/100 ha.	16
15. irudia.	Araubide komuneko eremuetan (urdina) eta araubide bereziko eremuetan (gorria) denboraldi batean batezbeste ehizatzen den oilagor kopurua/100 ha.	17
16. irudia.	Ehiza-ahalegina (ehizaldi kopurua/100 ha) araubide komuneko zonetan.	18
17. irudia.	Ehizatutako oilagor kopurua/100 ha, araubide komuneko zonetan.	18
18. irudia.	Ehiza-ahalegina (ehizaldi kopurua/100 ha) araubide bereziko zonetan.	19
19. irudia.	Ehizatutako oilagor kopurua/100 ha, araubide bereziko zonetan.	19

Taulen aurkibidea

1. taula.	Oilagorraren ehizarako araubide komuneko eta araubide bereziko Gipuzkoako eremuen ezaugarri nagusiak.	5
2. taula.	Oilagor ehizaren emaitzak: 2010/11 - 2020/21 denboraldiak.	20

1. SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Ehiza Federazioak oilagorraren (*Scolopax rusticola*) harrapaketa-parteen sistema bat (oilagor txartela) ezartzea erabaki zuten Gipuzkoa osoan 2010/11 denboralditik aurrera, Frantzia jada ezarrita zegoenaren antzekoa. Lehenago (2010eko otsailean) araubide bereziko eremuetan jarri zen martxan modu esperimentalean, eta Gipuzkoako lurraldea aitzindaria izan zen eredu hori ezartzen, bai eta egindako harrapaketen parteak izapidetzen eta aztertzen ere (ikus 1. irudia.).

Oilagor txartela ehiza-denboraldi amaieran nahitaez itzuli behar denez, gaur egun 15 denboraldi osoko informazioa dago Lurraldeko espeziearen ehizari buruz. Memoria hau idatzi den egunean, 526.000 datu baino gehiago biltzen ditu datu-baseak.

Sistema horren helburu nagusia da espezie horren ehiza hobeto kudeatzeko datuak eskuratzea.

NA-DUL Denboraldia-Temporada

OILAGORRA / BECADA 01

OILAGORRA / BECADA 02

OILAGORRA / BECADA 03

OILAGORRA / BECADA 04

OILAGORRA / BECADA 05

OILAGORRA / BECADA 06

OILAGORRA / BECADA 07

OILAGORRA / BECADA 08

OILAGORRA / BECADA 09

OILAGORRA / BECADA 10

OILAGORRA / BECADA 11

OILAGORRA / BECADA 12

OILAGORRA / BECADA 13

OILAGORRA / BECADA 14

OILAGORRA / BECADA 15

REQUISITOS

- Para poder cazar becadas en Gipuzkoa, es obligatorio portar el presente parte de capturas. En el momento de iniciar la cacería, el cazador deberá portar el día correspondiente en el calendario. En caso de cazar en una zona de régimen especial deberá portar, así mismo, la casilla de «zona».
- A toda becada cazada se le pondrá en una pata el precinto autoadhesivo correspondiente de este parte de capturas.
- Antes de poner el precinto a la becada, portar en el calendario del parte de capturas la casilla correspondiente a la becada cazada.
- En el momento de remitir el parte de capturas a la Federación Guipuzcoana de Caza en un plazo máximo de 15 días tras la finalización del periodo de caza autorizado, incluso si no ha cazado nada o no ha salido a cazar.
- El incumplimiento de las condiciones anteriores, será considerado como infracción grave y sancionado con multa de 501 a 2.000 euros, así como la anulación de la licencia de caza y la privación de la facultad de cacería en un plazo de 1 a 3 años.
- En caso de capturar una becada anillada, el cazador deberá remitir la anilla a la Federación Guipuzcoana de Caza, aportando los datos del cazador, la fecha y el lugar de captura.
- Los días de caza serán los establecidos por la Orden Foral de vedas en vigor.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Oilagorri ehizatu ahal izateko Gipuzkoan, de-harria da harrapaketa parte hau eramatea. Ehizaketa hasieratik, ehizariak egutegian dagoen eguna zutatu behar du. Erregimen bereziko lurraldean ehizatzen baldin bada, «erregimen bereziko» itxura ere zutatu behar du.
- Ehizatutako oilagorri guztiak harrapaketa parte honetako dagoen zutigi itxasora jarriko zaie hanka balsean.
- Oilagorri zutigi jarri aurretik, harrapaketa partean dagoen egutegian, ehizatutako oilagorri dagoen lekutara zutatu behar da.
- Baimendutako ehiza-epaia bukatu ondoren, gehienez ere 15 eguneko epean, demagunko da harrapaketa parte Guipuzkoako Ehiza Federazioakaz igortzea, nahitaez epe hori ez ehizatu edo ehizatzea ez aldera.
- Aurreko baldintza horiek ez betetzea arau-hauste larria izango da eta 501 euro eta 2.000 euro bitarteko larria jarriko da, erabak, ehiza-iruzkia ezabatuko da eta ezin izango da berreskuratu 1-3 urteko epean.
- Eraztunekin markatutako oilagorri bat ehizatuz gero, ehizariak Guipuzkoako Ehiza Federazioari igorri behar du eraztuna, ehiza lekua, eguna eta ehizariaren datuak batera.
- Ehiza egunak izango dira indarrean dagoen debekualde bidezko Foru Aintzak finkatzen dituenak.

FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE CAZA
Pasadizo de Ansoa 5 - Oficina 41
20014 Donostia - San Sebastián
Tfno: 943 474 642

GIPUZKOAKO EHIZA FEDERAKUNTZA
Ansoa Pasadizo 5 - 61 Bulegoa
20014 Donostia - San Sebastián
Tfno: 943 474 642

**GIPUZKOAN OILAGORREN
HARRAPAKETA PARTEA**
PARTE DE CAPTURAS DE BECADA EN GIPUZKOA

TEMPORADA DENBORALDIA

ERREGIMEN BEREZIKO EHIZA EREMUA
ZONA DE Caza EN RÉGIMEN ESPECIAL

APROBETAMENDU / APROBETAMENDU EHIZA EREMUA
ZONA DE Caza EN RÉGIMEN ESPECIAL

IZENA / NOMBRE

NA-DUL

ABIZENAK / APELLIDOS

EHIZA-KUPOA / CUPO DE CAPTURAS

Barnen bakoitzeko gehienezko kupoa: 15 oilagor
Cupo máximo de becas por permiso: 15 becas
Egun bakoitzeko gehienezko kupoa: 3 oilagor
Cupo máximo de becas por día: 3 becas

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gipuzkoako Ehiza Federazioa
Federación Guipuzcoana de Caza

Egun Dia	Erregimen Zona	Oilagorri / Becadas	1	2	3
11					
12					
13					
14					
15					
16					
17					
18					
19					
20					
21					
22					
23					
24					
25					
26					
27					
28					
29					
30					
31					

Egun Dia	Erregimen Zona	Oilagorri / Becadas	1	2	3
6					
7					
8					
9					
10					
11					
12					
13					
14					
15					
16					
17					
18					
19					
20					
21					
22					
23					
24					
25					
26					
27					
28					
29					
30					
31					

Egun Dia	Erregimen Zona	Oilagorri / Becadas	1	2	3
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					
8					
9					
10					
11					
12					
13					
14					
15					
16					
17					
18					
19					
20					
21					
22					
23					
24					
25					


Egun Dia	Erregimen Zona	Oilagorri / Becadas	1	2	3
26					
27					
28					
29					
30					
31					

1. irudia. Gipuzkoako oilagorraren ehiza harrapaketa-partea, oilagor txartela (goian aurrealdea, behean atzekaldea).

2. ZONIFIKAZIOA

Oilagorren ehiza-partreak kudeatzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoa 14 eremutan banatzen da; sei araubide komunekoak eta zortzi araubide berezikoak (ikus 2. irudia.).

Ehiztariek askatasun osoz aukera dezakete ehizatu ohi duten araubide komuneko ehiza-eremua; tradizioz, ehiza-eremu libreak edo aprobetxamendu komunekoak deitzen diren lurrak dira, eta eskualde geografikoetan banatzen direnak. Araubide komuneko ehiza-eremuaz gain, aukeran, ehiztariek araubide bereziko eremu bakarra hauta dezakete (gehienak babestutako naturguneekin bat datozenak), ehiztari eta denboraldi bakoitzeko. Hautatutako bi eremuei buruzko informazioa ehiztari bakoitzak denboraldirako duen oilagor txartelan agertzen da.



2. irudia. Oilagorraren ehizarako araubide komuneko eta araubide bereziko eremuen kokapena Gipuzkoan.

2021eko Baso Inbentariotik abiatuta, kalkulatzen da Gipuzkoan oilagorra ehizatzeko potentzialki egokia den baso-azalera 128.000 ha-koa dela, hau da, lurraldearen % 65 (ikus 1. taula.). Oilagorrak ehizatzeko azalera potentzialtzat edo egokitatzat jo dira baso-azalerak (baso autoktonoak, baso-landaketak eta zuhaixkak), haien jabetza edozein dela ere; azalera horretatik kanpo utzi dira gainerako azalerak, bai eta faunaren babeslekuetako eta deklaraturako segurtasun-eremuetako azalerak ere.

Araubide komuneko ehiza-eremuek 153.786 ha hartzen dituzte, eta horietatik 94.941 ha oilagorrak ehizatzeko egokiak izan daitezkeela uste da, hau da, lurraldearen % 48. Azalera handieneko araubide komuneko eremua Debabarrena-Urola Erdi-Kosta da, 31.634 ha potentzialekin; eta azalera txikiena duena Bidasoaldea-Oarsoaldea da, 3.476 ha-rekin.

Araubide bereziko ehiza-eremuek 44.463 ha-ko azalera hartzen dute, eta horietatik 33.459 ha oilagorrak ehizatzeko egokiak izan daitezkeela uste da, hau da, lurraldearen % 17. Azalera handieneko araubide bereziko eremua Aizkorri-Aratz da, 7.348 ha potentzialekin, eta txikiena Leintz-Gatzaga Ehiza Barrutia, 897 ha-rekin.

KODEA	IZENA	ZONA MOTA	AZALERA TOTALA	OILAGOR EHIZARAKO AZALERA POTENTZIALA (ha)	ZONAREN AZALERAREKIKO %	AZALERA TOTALAREKIKO %
1	AIAKO HARRIA, JAIZKIBEL	ESPECIAL	9.311	7.131	76,6	3,6
2	ARALAR	ESPECIAL	10.941	5.999	54,8	3,0
3	AIZKORRI-ARATZ	ESPECIAL	9.818	7.348	74,8	3,7
4	ARNO, IZARRAITZ	ESPECIAL	2.550	1.958	76,8	1,0
5	COTO LEIZARAN	ESPECIAL	3.036	2.973	97,9	1,5
6	ZEC ERNIO-GAZUME, ZCC ERNIO	ESPECIAL	2.159	1.560	72,3	0,8
7	ALTO DEBA-ALTO UROLA	COMÚN	34.256	25.606	74,7	12,9
8	BAJO DEBA-UROLA MEDIO-COSTA	COMÚN	52.476	31.634	60,3	16,0
9	BIDASOALDEA-OARSOALDEA	COMÚN	9.705	3.476	35,8	1,8
10	DONOSTIALDEA	COMÚN	15.983	7.069	44,2	3,6
11	GOIERRI	COMÚN	24.057	16.697	69,4	8,4
12	TOLOSALDEA	COMÚN	20.141	13.805	68,5	7,0
13	COTO PARZONERIA	ESPECIAL	2.340	1.917	81,9	1,0
14	COTO LEINTZ-GATZAGA	ESPECIAL	1.002	897	89,5	0,5
TOTAL			197.775	128.070		65

1. taula. Oilagorraren ehizarako araubide komuneko eta araubide bereziko Gipuzkoako eremuen ezaugarri nagusiak.

3. EMAITZAK

Atal honetan, azken denboraldiko (2024/25) eta 2010-2025 epeko datu-multzoaren emaitzak aurkezten dira.

3.1. EMAITZA OROKORRAK

Banatutako oilagor txartel kopurua:

- 2024/25 = 3.972. Datuen serieko kopuru txikiena (%-5 aurreko denboraldiarekin alderatuta).
- 2010-2025 epean balio-tarteak, urteko = 3.972 - 5.644; batezbestekoa = 4.970 (ikus 2. taula.).

Ehiztari aktibo kopurua:

- 2024/25 = 1.817 (%-6,2).
- 2010-2025 epean balio-tarteak, urteko = 3.621 - 1.817; batezbestekoa= 2.700.
- 2010-2025 eboluzioa: 2010 eta 2025 urteen artean %50 jaitsi da; etenik gabeko jaitsiera, batezbeste urtean %3,6-koa (ikus 3. irudia.).

Oilagor ehiza jardunaldi kopurua:

- 2024/25 = 25.804 (%-3,2).
- 2010-2025 epean balio-tarteak, urteko = 25.297 - 54.400; batezbestekoa= 34.781.
- 2010-2025 eboluzioa: %53 jaitsi da aztertutako epean zehar (ikus 3. irudia. eta 2. taula.).

Ehiztari bakoitzeko eta denboraldiko oilagor ehiza jardunaldi kopurua:

- 2024/25 = 14,2.
- 2010-2025 epean balio-tarteak, urteko = 10,5 – 15,0; batezbestekoa = 12,9 jardunaldi.

Ehizatutako oilagor kopurua:

- 2024/25 = 3.654 (%-23 aurreko denboraldiarekin alderatuta). Datu serieko kopuru txikiena.
- 2010-2025 epean balio-tarteak, urteko = 3.654 - 9.166. Batezbestekoa= 6.134.


- 2010-2025 eboluzioa: urte arteko gorabeherak gertatzen dira, aztertutako epean joera argirik ikusten ez delarik (ikus 4. irudia. eta 2. taula.).

Ehiztari bakoitzeko eta denboraldiko ehizatutako oilagor kopurua:


- 2024/25 = 2,01.
- 2010-2025 epean balio-tarteak, urteko = 1,59 - 3,48; batezbestekoa = 2,27 (ikus 5. irudia.).

Ehizatutako oilagor kopurua, jardunaldiko:


- 2024/25 = 0,14.
- 2010-2025 epean balio-tarteak, urteko = 0,12 - 0,25; batezbestekoa = 0,18.
- 2010-2025 eboluzioa: urte arteko gorabeherak izan dituen arren, indize hori egonkor mantendu da (ikus 5. irudia.). Eta batezbeste, %26 altuagoa da araubide bereziko zonetan araubide komuneko zonetan baino (ikus 6. irudia.).




3. irudia. Ehiztari aktiboen eta ehiza jardunaldien kopuruaren bilakaera 2010 eta 2025 artean.



4. irudia. Ehizatutako oilagor kopuruaren bilakaera 2010 eta 2025 artean.




5. irudia. 2010 eta 2025 artean, jardunaldiko ehizatutako oilagor kopuruaren bilakaera; eta ehiztari bakoitzeko eta denboraldiko ehizatutako oilagor kopuruaren bilakaera.




6. irudia. 2010 eta 2025 artean, ehiza araubide ezberdineko eremuetan (komun/berezi) jardunaldiko ehizatutako oilagor kopuruaren bilakaera.

3.2. EMAITZAK HILABETEKA

Urritik otsailera bitarteko ehiza-denboraldi tipiko batean zehar, ehiza-jardunaldien kopurua handiena azaroan izaten da, eta, horren ondoren, ehiza-ahalegina gutxituz doa, otsailean gutxienez iritsi arte. Hilabetero ehizatutako oilagorren kopuruak dinamika berari jarraitzen dio (ikus 7. irudia. eta 8. irudia.).




7. irudia. 2010-2025 artean, ehiza jardunaldien eta ehizatutako oilagorren batezbesteko kopuruen bilakaera, hilabeteka.



8. irudia. 2010-2025 artean, ehizatutako oilagorren batezbesteko kopurua, hilabeteka. Geziek hilabete bakoitzeko balio minimo eta maximoak adierazten dituzte.


Arroyo & Guzmanek (2010) Estatu mailan deskribatutakoaren antzera, batezbeste, Gipuzkoan oilagorren erdia baino gehiago abendua hasi baino lehen ehizatzen dira, eta, beraz, eztei ondoko migrazioa amaitu baino lehen (ikus 9. irudia.).




9. irudia. Aste bakoitzean ehizatutako oilagorren batazbesteko kopurua, denboraldi osoan ehizatzen denarekiko konparatuta. 2010 eta 2025 epeko datuak.

3.3. ASTE EGUNEN ARABERAKO EMAITZAK

Oilagorren ehiza-ahalegin handiena asteburuetan egiten da, eta, zehazki, larunbatetan, lanegun batean baino %46 ehiza jardunaldi gehiago izaten baitira. Ehizaren etekinari dagokionez (jardunaldiko ehizatutako oilagor kopurua), ez dago alde handirik asteko egun desberdinen artean. Gutxieneko etekina igandeetan ematen da, eta genienekoa ostiraletan, bi egunetako baloreen arteko diferentzia %10 izanik (ikus 10. irudia. eta 11. irudia.).



10. irudia. 2010-2025 artean, ehiza jardunaldien batezbesteko kopurua, asteo eguneko. Geziek egun bakoitzeko balio minimo eta maximoak adierazten dituzte.




11. irudia. 2010-2025 artean, ehizatutako oilagorren batezbesteko kopurua jardunaldiko, asteo egun bakoitzerako. Geziek egun bakoitzeko balio minimo eta maximoak adierazten dituzte.

3.4. EMAITZAK ASTEKA

Atal honetan 2010-2025 denboraldietan oilagorraren ugaritasunak astero izandako aldakuntza aztertzen da, ehiza-jardun bakoitzeko ehizatutako oilagor kopuruaren batezbestekoaren bidez; kanpoan utzi dira hotz-bolada bat erregistratu den asteetako datuak, horietan muturreko ugaritasun-balioak ematen baitira.

Gure lurraldean oilagorraren ugaritasunak bilakaera-eredu orokor bat jarraitzen du, urtero errepikatzen dena. Ateratzen den ereduaren arabera, maximoa 46-47. asteen inguruan gertatzen da (azaroaren erdialdean); hortik aurrera, ugaritasuna gutxituz doa pixkanaka, 6. astean (otsailaren bigarren astean) minimoa gertatu arte, orduan % 68 txikiagoa baita 46. asteko maximoarekin alderatuta (ikus 12. irudia.). Ugaritasunak denboraldian zehar izan duen bilakaera-eredu hori bat dator Gipuzkoan egindako laginketa espezifikoaren bidez lortutako emaitzekin (Mendiburu & Arizaga, 2010).




12. irudia. Ehiza-denboraldiko aste bakoitzean, jardunaldiko ehizatutako oilagor kopuruaren bilakaera, hotzaldiak alde batera utzita. 2010-2025 aldirako batezbestekoa adierazten da.

Oro har, deskribatutako eredua errepikatu egiten da denboraldi bakoitzean; ugaritasunaren maximoa 46. astearen inguruan gertatzen da (azaroaren erdialdean) eta ondoren, denboraldiak aurrera egin ahala, ugaritasuna murriztu egiten da (ikus 13. irudia.).

Eredu orokorretik kanpo, hotzaldiei lotutako ugaritasun-maximoak gertatzen dira (ikus 13. irudia.). Zehazki, datu multzoaren ugaritasunik handiena (0,6 ehizatutako oilagor/jardunaldiko) 2012. urtearen 7. asteen erregistratu zen, hotzaldi baten ondoren ehiza berriro ireki zenean, 1.505 oilagor ehizatu zirenean (2011/12 denboraldiko guztizkoaren %20).

15 denboraldiko epean, AEMETen (2024) agertzen diren datuen arabera, 8 hotz-bolada erregistratu dira 8 denboraldi ezberdinetan: 2012ko 5. eta 6. asteetan (2011/12 denboraldia), 2015eko 1. asteen (2014/15 denboraldia), 2017ko 3. asteen (2016/17 denboraldia), 2017ko 49. asteen (2017/18 denboraldia), 2021eko 1. asteen (2020/21 denboraldia), 2022ko 3. asteen (2021/22 denboraldia) eta 2023ko 5. asteen (2022/23 denboraldia), hurrenez hurren. Lehen bi olatuetan, ehiza-denboraldia berariaz eten zen, 2012/02/3tik 2012/02/16ra, eta 2015/02/05etik 2015/02/9ra.

Azkenik, 2010-2025 aldiko datuak kontuan hartuta, aztertutako indizearen erregresio-zuzenak bilakaera egonkorra erakusten du, nahiz eta urte arteko gorabehera handiak izan (ikus 13. irudia.). Antzeko egoera ondoriozta liteke Gipuzkoako Foru Aldundiko basozainek 2009tik urtero egiten duten espeziearen jarraipen eta eraztunketa lanetatik (GFA, 2025).




13. irudia. Gorriz, jardunaldiko harrapatutako oilagor kopuruaren bilakaera denboraldi bakoitzeko astearen arabera, eta erregresio linealeko zuzena 2010-2025 azterketa-aldirako (marra gorri etena). Banda urdinetan, Gipuzkoan hotzaldiak gertatu diren asteak (iturria: AEMET, 2024).

3.5. ZONAREN ARABERAKO EMAITZAK

Atal honetan 2010-2025 epeko oilagorren ehizaren emaitzak, ehiza-lur ezberdinetako ehiza-azalera potentzialaren arabera aztertzen dira.


Araubide bereziko eremuetan denboraldi batean egiten den ehiza-ahalegina (43 egun/100 ha denboraldi bakoitzean) araubide komuneko eremuetan egiten denaren bikoitza da (22 egun/100 ha) (ikus 14. irudia.).

Araubide komuneko eremuetan, ehiza-ahalegin handiena Bidasoa-Oarsoaldean egiten da (batezbeste, 46 egun/100 ha denboraldi bakoitzean), eta txikiena Goierrin (15 egun/100 ha) (ikus 16. irudia.); ehiza-araubide bereziko eremuetan, ehiza-ahalegin handiena Ernio-Gazumen egiten da, batezbeste 93 egun/100 ha, eta txikiena Leitzaranen (11 jardunaldi/100 ha) (ikus 18. irudia.).



14. irudia. Araubide komuneko eremuetan (urdina) eta araubide bereziko eremuetan (gorria) denboraldi batean batezbeste egiten diren ehiza-jardunaldien kopurua/100 ha.


Denboraldi batean 100 ha bakoitzeko batezbeste ehizatzen diren oilagorren kopurua 2,5 aldiz handiagoa da araubide bereziko eremuetan (8,6 oilagor/100 ha-ko) araubide komuneko eremuetan baino (3,5 oilagor/100 ha-ko) (ikus 15. irudia.).




15. irudia. Araubide komuneko eremuetan (urdina) eta araubide bereziko eremuetan (gorria) denboraldi batean batezbeste ehizatzen den oilagor kopurua/100 ha.

Araubide komuneko eremuetan, ehiza etekin handiena Bidasoa-Oarsoaldean erregistratzen da, batezbeste, 6,6 oilagor/100 ha; eremu horretan erregistratzen da, aldi berean, ehiza-ahalegin handiena/100 ha; ehiza etekin txikiena, berriz, Goierrin dago (2,4 oilagor/100 ha), eremu horretan egiten da aldi berean, ehiza-ahalegin txikiena/100 ha (ikus 17. irudia.).


Ehiza-araubide bereziko eremuetan, ehiza etekin altuenak Ernio-Gazumen ematen dira (18,1 oilagor/100 ha); eremu horretan erregistratzen da aldi berean, ehiza-ahalegin handiena. Ehiza-etekin txikiena Aralarren ematen da (2,7 oilagor/100 ha) (ikus 19. irudia.).




16. irudia. Ehiza-ahalegina (ehizaldi kopurua/100 ha) araubide komuneko zonetan.



17. irudia. Ehizatutako oilagor kopurua/100 ha, araubide komuneko zonetan.



18. irudia. Ehiza-ahalegina (ehizaldi kopurua/100 ha) araubide bereziko zonetan.



19. irudia. Ehizatutako oilagor kopurua/100 ha, araubide bereziko zonetan.



DENBORALDIA / TEMPORADA	10/11	11/12	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23	23/24	24/25	TOTAL	BATEZBESTE /PROMEDIO	MAX	MIN
Oilagor txartel kop / Nº partes captura	5.644	5.467	5.440	5.570	5.640	5.314	5.188	5.193	4.908	4.698	4.414	4.470	4.451	4.180	3.972	74.549	4.970	5.644	3.972
Ehiztari aktibo kop. / Nº cazadores activos	3.621	3.407	3.163	3.205	3.008	2.588	2.886	2.635	2.596	2.447	2.528	2.462	2.206	1.937	1.817	40.506	2.700	3.621	1.817
Ehiza jardunaldi kop. / Nº jornadas	54.400	45.046	41.464	38.009	35.736	27.121	37.317	29.145	33.997	31.765	35.832	34.132	25.297	26.651	25.804	521.708	34.781	54.399	25.297
Ehiza jardunaldi kop., ehiztariko / Nº jornadas por cazador	15,0	13,2	13,1	11,9	11,9	10,5	12,9	11,1	13,1	13,0	14,2	13,9	11,5	13,8	14,2	12,9	12,9	15,0	10,5
Ehizatuak / Cazadas	9.166	7.575	5.671	7.681	4.882	4.110	8.634	7.339	5.383	6.116	4.355	8.580	4.093	4.768	3.654	92.007	6.134	9.166	3.654
Ehizatuak ehiztariko, denboraldi osoan / Cazadas por cazador y temporada	2,53	2,22	1,79	2,40	1,62	1,59	2,99	2,79	2,07	2,50	1,72	3,48	1,86	2,46	2,01	2,27	2,27	3,485	1,588
Ehizatuak jardunaldiko / Cazadas por jornada	0,17	0,17	0,14	0,20	0,14	0,15	0,23	0,25	0,16	0,19	0,12	0,25	0,16	0,18	0,14	5,67	0,18	0,252	0,122

2. taula. Oilagor ehizaren emaitzak: 2010/11 - 2024/25 denboraldiak.

4. LABURPENA ETA ONDORIOA

Txosten honetan oilagorraren ehizak Gipuzkoan 2010-2025 aldian izan duen bilakaera aztertzen da. Jarduera horrek 2.700 ehiztari inguru mugitzen ditu urtero; ehiztari aktiboen kopurua %50 jaitsi da 15 urtean.

Ehiztariak, denboraldi batean, batezbeste 34.781 ehizaldi egiten dituzte, eta 6.134 oilagor ehizatzen dituzte: batezbeste, ehiztari batek denboraldi batean 12,9 jardunaldi eskeintzen dizkio oilagorraren ehizari, batezbeste 0,18 oilagor/jardunaldiko eta 2,27 oilagor/denboraldiko ehizatzen duelarik. Ehizaldi gehienak azaroan eta abenduan izaten dira, eta asteburuetan.

Espeziearen ugaritasunak (ehizatutako oilagor kopurua/jardunaldiko) 2010-2025 aldian izan duen asteroko aldakuntza aztertuta, Gipuzkoan jardunaldi bakoitzeko harrapatutako oilagorren kopuru handiena urtearen 46. astearen inguruan gertatu da (azaroaren erdialdean). Hortik aurrera, ehiza-denboraldiak aurrera egin ahala, ugaritasunak behera egiten du, 6. astearen inguruan (otsaileko bigarren astea) minimoa gertatu arte; orduan dagoen ugaritasuna, maximoan baino %68 txikiagoa da.

2010-2025 aldian, oilagorraren ugaritasunaren bilakaera egonkorra izan da, nahiz eta urte arteko gorabehera handiak izan. Hotzaldiekin lotutako ugaritasun handiko maximoak erregistratu dira; izan ere, kostaldea neguko baldintza zorrotzetatik ihesi datozen hegaztien babesleku bihurtzen da, eta hegaztien kontzentrazioak oso altuak izaten dira. Argi geratzen da hotzaldietan berebiziko garrantzia duela administrazioen artean modu koordinatuan jardutea eta ehiza-jarduera etetea, heriotza masiboak saihesteko.

Araubide bereziko eremuetan, naturagune babestuak direnak, azalera araberako ehiza-ahalegin handiagoa egiten da eta etekin handiagoa lortzen da. Horrek agerian uzten du eremu horietako ustiaketa arautu beharra dagoela, maila jasangarrietan mantentzeko. Ildo horretan, espeziea etorkizunean modu egokian kudeatzeko, ezarritako oilagor txartelaren sistemak oinarri izan behar du.

5. ITURRIAK

AEMET. 2024. *Olas de frío en España desde 1975*.

https://www.aemet.es/documentos/es/conocermas/recursos_en_linea/publicaciones_y_estudios/estudios/Olas_frio/olas_frio_a_ctualizacion_dic24.pdf

Arroyo, B. & J.L. Guzmán. 2010. Estudio inter-autonómico sobre la becada (*Scolopax rusticola*) en España. Informe final (v.2). Instituto de Investigación en Recursos Cinegéticos (IREC). Inédito.

GFA. 2025. *Oilagor eraztunketa Gipuzkoan. 2024-2025 Denboraldia*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Lurralde Oreka Berdeko Departamentua. Argitaratu gabea.

Inventario Forestal de la Comunidad Autónoma de Euskadi 2021.

<ftp://ftp.geo.euskadi.eus/cartografia/Agricultura/>


Mendiburu, A., & J. Arizaga. 2010. Patrones de distribución espacial y temporal de la becada (*Scolopax rusticola*) en Gipuzkoa, durante el periodo de migración e invernada. *Munibe* 58:187-195.



1. ERANSKINA. ARAUBIDE KOMUNEKO ZONETAKO OILAGOR EHIZAREN EMAITZEN LABURPENA

ALTO DEBA- ALTO UROLA


- Azalera totala (ha): 34.256
- Oilagor ehizarako azalera potentziala (ha): 25.606



Denboraldia	10/11	11/12	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23	23/24	24/25	TOTAL	PROMEDIO	MAX	MIN
Ehiztari aktibo kop.	326	343	314	414	374	348	329	184	225	289	331	299	270	208	143	4.422	293	414	143
Ehiza jardunaldi kop.	6.185	5.115	4.777	5.233	4.764	4.185	4.903	2.490	3.441	4.455	4.996	5.014	3.406	3.466	2.412	64.842	4.322,8	6.185	2.412
Ehizatutakoak	1.011	672	611	1.128	630	648	1.028	661	509	877	607	1.296	492	634	351	11.155	743,7	1.296	351
Ehizatuak/ehiztariko, denboraldi osoan	3,10	1,96	1,95	2,72	1,68	1,86	3,12	3,59	2,26	3,03	1,83	4,33	1,82	3,05	2,45	2,52	2,59	4,33	1,68
Ehizatuak/ jardunaldiko	0,16	0,13	0,13	0,22	0,13	0,15	0,21	0,27	0,15	0,20	0,12	0,26	0,14	0,18	0,15	0,17	0,17	0,27	0,12
Ehiztari aktibo kop./100 HA	1,46	1,54	1,41	1,86	1,68	1,56	1,48	0,83	1,01	1,30	1,49	1,34	1,21	0,93	0,64	19,86	1,32	1,86	0,64
Ehiza jardunaldi kop./100 HA	27,78	22,98	21,46	23,51	21,40	18,80	22,02	11,19	15,46	20,01	22,44	22,52	15,30	15,57	10,83	291,28	19,42	27,78	10,83
Ehizatutakoak/100 HA	4,54	3,02	2,74	5,07	2,83	2,91	4,62	2,97	2,29	3,94	2,73	5,82	2,21	2,85	1,58	50,11	3,34	5,82	1,58

BAJO DEBA- UROLA MEDIO- COSTA


- Azalera totala (ha): 52.476
- Oilagor ehizarako azalera potentziala (ha): 31.634



Denboraldia	10/11	11/12	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23	23/24	24/25	TOTAL	PROMEDIO	MAX	MIN
Ehiztari aktibo kop.	761	694	647	648	611	473	500	365	396	418	442	376	351	263	236	7.216	479	761	236
Ehiza jardunaldi kop.	13.435	10.173	9.415	8.337	8.089	4.714	7.535	4.164	6.049	5.962	6.954	6.047	4.655	4.170	3.926	103.625	6.908	13.435	3.926
Ehizatutakoak	2.189	1.691	1.112	1.410	949	612	1.559	901	822	1.001	709	1.357	779	673	589	16.353	1.090	2.189	589
Ehizatuak/ehiztariko, denboraldi osoan	2,88	2,44	1,72	2,18	1,55	1,29	3,12	2,47	2,08	2,39	1,60	3,61	2,22	2,56	2,50	2,27	2,31	3,61	1,29
Ehizatuak/ jardunaldiko	0,16	0,17	0,12	0,17	0,12	0,13	0,21	0,22	0,14	0,17	0,10	0,22	0,17	0,16	0,15	0,16	0,16	0,22	0,10
Ehiztari aktibo kop./100 HA	2,41	2,19	2,05	2,05	1,93	1,50	1,58	1,15	1,25	1,32	1,40	1,19	1,11	0,83	0,75	22,81	1,51	2,41	0,75
Ehiza jardunaldi kop./100 HA	42,47	32,16	29,76	26,35	25,57	14,90	23,82	13,16	19,12	18,85	21,98	19,12	14,72	13,18	12,41	327,58	21,84	42,47	12,41
Ehizatutakoak/100 HA	6,92	5,35	3,52	4,46	3,00	1,93	4,93	2,85	2,60	3,16	2,24	4,29	2,46	2,13	1,86	51,69	3,45	6,92	1,86

BIDASOA- OARSOALDEA


- **Azalera totala (ha): 9.705**
- **Oilagor ehizarako azalera potentziala (ha): 3.476**



Denboraldia	10/11	11/12	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23	23/24	24/25	TOTAL	PROMEDIO	MAX	MIN
Ehiztari aktibo kop.	135	168	139	201	198	156	152	83	110	147	129	127	132	80	46	2.001	134	201	46
Ehiza jardunaldi kop.	1.910	2.019	1.834	2.176	2.075	1.425	2.070	969	1.246	1.391	1.762	1.824	1.461	1.132	678	23.972	1.598	2.176	678
Ehizatutakoak	278	215	190	342	247	197	429	157	125	254	178	327	274	164	67	3.444	230	429	67
Ehizatuak/ehiztariko, denboraldi osoan	2,06	1,28	1,37	1,70	1,25	1,26	2,82	1,89	1,14	1,73	1,38	2,57	2,08	2,05	1,46	1,72	1,74	2,82	1,14
Ehizatuak/ jardunaldiko	0,15	0,11	0,10	0,16	0,12	0,14	0,21	0,16	0,10	0,18	0,10	0,18	0,19	0,14	0,10	0,14	0,14	0,21	0,10
Ehiztari aktibo kop./100 HA	3,88	4,83	4,00	5,78	5,70	4,49	4,37	2,39	3,16	4,23	3,71	3,65	3,80	2,30	1,32	57,57	3,84	5,78	1,32
Ehiza jardunaldi kop./100 HA	54,95	58,09	52,77	62,61	59,70	41,00	59,56	27,88	35,85	40,02	50,69	52,48	42,03	32,57	19,51	689,70	45,98	62,61	19,51
Ehizatutakoak/100 HA	8,00	6,19	5,47	9,84	7,11	5,67	12,34	4,52	3,60	7,31	5,12	9,41	7,88	4,72	1,93	99,09	6,61	12,34	1,93

DONOSTIALDEA


- Azalera totala (ha): 15.983
- Oilagor ehizarako azalera potentziala (ha): 7.069



Denboraldia	10/11	11/12	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23	23/24	24/25	TOTAL	PROMEDIO	MAX	MIN
Ehiztari aktibo kop.	268	277	234	245	236	188	183	196	142	144	179	133	130	105	104	2.765	184	277	104
Ehiza jardunaldi kop.	4.146	3.301	3.027	2.655	2.525	1.612	2.221	2.226	1.621	1.674	2.452	2.050	1.675	1.532	1.429	34.146	2.276	4.146	1.429
Ehizatutakoak	642	477	361	439	305	134	416	379	160	273	202	352	206	233	128	4.707	314	642	128
Ehizatuak/ehiztariko, denboraldi osoan	2,40	1,72	1,54	1,79	1,29	0,71	2,27	1,93	1,13	1,90	1,13	2,65	1,58	2,22	1,23	1,70	1,70	2,65	0,71
Ehizatuak/ jardunaldiko	0,15	0,14	0,12	0,17	0,12	0,08	0,19	0,17	0,10	0,16	0,08	0,17	0,12	0,15	0,09	0,14	0,14	0,19	0,08
Ehiztari aktibo kop./100 HA	3,79	3,92	3,31	3,47	3,34	2,66	2,59	2,77	2,01	2,04	2,53	1,88	1,84	1,49	1,47	39,12	2,61	3,92	1,47
Ehiza jardunaldi kop./100 HA	58,65	46,70	42,82	37,56	35,72	22,81	31,42	31,49	22,93	23,68	34,69	29,00	23,70	21,67	20,22	483,07	32,20	58,65	20,22
Ehizatutakoak/100 HA	9,08	6,75	5,11	6,21	4,31	1,90	5,89	5,36	2,26	3,86	2,86	4,98	2,91	3,30	1,81	66,59	4,44	9,08	1,81

GOIERRI


- Azalera totala (ha): 24.057
- Oilagor ehizarako azalera potentziala (ha): 16.697



Denboraldia	10/11	11/12	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23	23/24	24/25	TOTAL	PROMEDIO	MAX	MIN
Ehiztari aktibo kop.	270	264	232	254	238	177	205	191	146	158	209	204	199	134	121	3.009	200	270	121
Ehiza jardunaldi kop.	4.644	4.069	2.812	2.982	2.712	1.633	2.055	2.085	1.763	1.848	2.617	3.180	2.012	1.842	1.482	37.736	2.516	4.644	1.482
Ehizatutakoak	653	471	357	586	359	242	433	458	224	335	287	764	251	329	194	5.943	396	764	194
Ehizatuak/ehiztariko, denboraldi osoan	2,42	1,78	1,54	2,31	1,51	1,37	2,11	2,40	1,53	2,12	1,37	3,75	1,26	2,46	1,60	1,98	1,97	3,75	1,26
Ehizatuak/ jardunaldiko	0,14	0,12	0,13	0,20	0,13	0,15	0,21	0,22	0,13	0,18	0,11	0,24	0,12	0,18	0,13	0,16	0,16	0,24	0,11
Ehiztari aktibo kop./100 HA	1,62	1,58	1,39	1,52	1,43	1,06	1,23	1,14	0,87	0,95	1,25	1,22	1,19	0,80	0,72	18,02	1,20	1,62	0,72
Ehiza jardunaldi kop./100 HA	27,81	24,37	16,84	17,86	16,24	9,78	12,31	12,49	10,56	11,07	15,67	19,05	12,05	11,03	8,88	226,01	15,07	27,81	8,88
Ehizatutakoak/100 HA	3,91	2,82	2,14	3,51	2,15	1,45	2,59	2,74	1,34	2,01	1,72	4,58	1,50	1,97	1,16	35,59	2,37	4,58	1,16

TOLOSALDEA

- Azalera totala (ha): 20.141
- Oilagor ehizarako azalera potentziala (ha): 13.805





Denboraldia	10/11	11/12	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23	23/24	24/25	TOTAL	PROMEDIO	MAX	MIN
Ehiztari aktibo kop.	247	266	230	271	279	251	228	201	240	211	240	230	220	163	157	3.452	229	279	157
Ehiza jardunaldi kop.	3.896	3.325	3.155	3.381	3.172	2.517	2.765	1.980	3.474	2.806	3.985	3.156	2.619	2.283	2.281	44.795	2.986	3.985	1.980
Ehizatutakoak	648	574	457	760	459	423	705	508	479	470	462	874	445	406	285	7.955	530	874	285
Ehizatuak/ehiztariko, denboraldi osoan	2,62	2,16	1,99	2,80	1,65	1,69	3,09	2,53	2,00	2,23	1,93	3,80	2,02	2,49	1,82	2,30	2,32	3,80	1,65
Ehizatuak/ jardunaldiko	0,17	0,17	0,14	0,22	0,14	0,17	0,25	0,26	0,14	0,17	0,12	0,28	0,17	0,18	0,12	0,18	0,18	0,28	0,12
Ehiztari aktibo kop./100 HA	1,79	1,93	1,67	1,96	2,02	1,82	1,65	1,46	1,74	1,53	1,74	1,67	1,59	1,18	1,14	25,00	1,66	2,02	1,14
Ehiza jardunaldi kop./100 HA	28,22	24,08	22,85	24,49	22,98	18,23	20,03	14,34	25,16	20,33	28,87	22,86	18,97	16,54	16,52	324,48	21,63	28,87	14,34
Ehizatutakoak/100 HA	4,69	4,16	3,31	5,51	3,32	3,06	5,11	3,68	3,47	3,40	3,35	6,33	3,22	2,94	2,06	57,62	3,84	6,33	2,06



2. ERANSKINA ARAUBIDE BEREZIKO ZONETAKO OILAGOR EHIZAREN EMAITZEN LABURPENA

AIAKO HARRIA, JAIZKIBEL

- Azalera totala (ha): 9.311
- Oilagor ehizarako azalera potentziala (ha): 7.131






Denboraldia	10/11	11/12	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23	23/24	24/25	TOTAL	PROMEDIO	MAX	MIN
Ehiztari aktibo kop.	247	266	230	271	279	251	228	201	240	211	240	230	231	271	265	5.201	346	519	231
Ehiza jardunaldi kop.	3.896	3.325	3.155	3.381	3.172	2.517	2.765	1.980	3.474	2.806	3.985	3.156	3.563	4.049	3.984	77.103	5.140	7.903	3.563
Ehizatutakoak	648	574	457	760	459	423	705	508	479	470	462	874	624	741	541	14.562	971	1.636	541
Ehizatuak/ehiztariko, denboraldi osoan	2,62	2,16	1,99	2,80	1,65	1,69	3,09	2,53	2,00	2,23	1,93	3,80	2,70	2,73	2,04	2,80	2,79	4,17	1,70
Ehizatuak/ jardunaldiko	0,17	0,17	0,14	0,22	0,14	0,17	0,25	0,26	0,14	0,17	0,12	0,28	0,18	0,18	0,14	0,19	0,19	0,26	0,12
Ehiztari aktibo kop./100 HA	1,79	1,93	1,67	1,96	2,02	1,82	1,65	1,46	1,74	1,53	1,74	1,67	3,24	3,80	3,72	72,93	4,86	7,28	3,24
Ehiza jardunaldi kop./100 HA	28,22	24,08	22,85	24,49	22,98	18,23	20,03	14,34	25,16	20,33	28,87	22,86	49,96	56,78	55,87	1.081,20	72,08	110,82	49,96
Ehizatutakoak/100 HA	4,69	4,16	3,31	5,51	3,32	3,06	5,11	3,68	3,47	3,40	3,35	6,33	8,75	10,39	7,59	204,20	13,61	22,94	7,59

ARALAR


- Azalera totala (ha): 10.941
- Oilagor ehizarako azalera potentziala (ha): 5.999



Denboraldia	10/11	11/12	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23	23/24	24/25	TOTAL	PROMEDIO	MAX	MIN
Ehiztari aktibo kop.	112	107	77	67	60	62	68	83	95	68	44	64	47	82	68	1.099	74	112	44
Ehiza jardunaldi kop.	1.495	1.194	728	776	599	540	699	851	1.005	815	527	712	457	822	918	12.138	809	1.495	457
Ehizatutakoak	253	202	121	198	87	110	219	216	167	130	116	221	72	174	165	2.451	163	253	72
Ehizatuak/ehiztariako, denboraldi osoan	2,26	1,89	1,57	2,96	1,45	1,77	3,22	2,60	1,76	1,91	2,64	3,45	1,53	2,12	2,43	2,23	2,24	3,45	1,45
Ehizatuak/ jardunaldiko	0,17	0,17	0,17	0,26	0,15	0,20	0,31	0,25	0,17	0,16	0,22	0,31	0,16	0,21	0,18	0,20	0,21	0,31	0,15
Ehiztari aktibo kop./100 HA	1,87	1,78	1,28	1,12	1,00	1,03	1,13	1,38	1,58	1,13	0,73	1,07	0,78	1,37	1,13	18,32	1,23	1,87	0,73
Ehiza jardunaldi kop./100 HA	24,92	19,90	12,14	12,94	9,99	9,00	11,65	14,19	16,75	13,59	8,79	11,87	7,62	13,70	15,30	202,34	13,49	24,92	7,62
Ehizatutakoak/100 HA	4,22	3,37	2,02	3,30	1,45	1,83	3,65	3,60	2,78	2,17	1,93	3,68	1,20	2,90	2,75	40,86	2,72	4,22	1,20

AIZKORRI-ARATZ

- Azalera totala (ha): 9.818
- Oilagor ehizarako azalera potentziala (ha): 7.348



Denboraldia	10/11	11/12	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23	23/24	24/25	TOTAL	PROMEDIO	MAX	MIN
Ehiztari aktibo kop.	496	470	428	365	308	342	380	425	386	331	263	254	231	254	310	5.212	350	496	231
Ehiza jardunaldi kop.	6.305	6.195	5.269	4.325	3.746	4.060	5.128	4.877	4.963	4.863	4.098	3.629	3.041	3.918	4.644	69.061	4.604	6.305	3.041
Ehizatutakoak	1.124	1.221	953	980	664	751	1.317	1.396	1.041	1.031	657	1.066	520	754	735	14.210	947	1.396	520
Ehizatuak/ehiztariko, denboraldi osoan	2,27	2,60	2,23	2,68	2,16	2,20	3,47	3,28	2,70	3,11	2,50	4,20	2,25	2,97	2,37	2,73	2,73	4,20	2,16
Ehizatuak/ jardunaldiko	0,18	0,20	0,18	0,23	0,18	0,18	0,26	0,29	0,21	0,21	0,16	0,29	0,17	0,19	0,16	0,21	0,21	0,29	0,16
Ehiztari aktibo kop./100 HA	4,50	4,26	3,88	3,31	2,79	3,10	3,45	3,86	3,50	3,00	2,39	2,30	2,10	2,30	2,81	47,28	3,17	4,50	2,10
Ehiza jardunaldi kop./100 HA	57,19	56,19	47,80	39,23	33,98	36,83	46,52	44,24	45,02	44,11	37,17	32,92	27,58	35,54	42,13	626,45	41,76	57,19	27,58
Ehizatutakoak/100 HA	10,20	11,08	8,64	8,89	6,02	6,81	11,95	12,66	9,44	9,35	5,96	9,67	4,72	6,84	6,67	128,90	8,59	12,66	4,72

ARNO, IZARRAITZ

- Azalera totala (ha): 2.550
- Oilagor ehizarako azalera potentziala (ha): 1.958






Denboraldia	10/11	11/12	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23	23/24	24/25	TOTAL	PROMEDIO	MAX	MIN
Ehiztari aktibo kop.	151	131	124	100	94	82	102	144	107	67	61	56	50	70	82	1.403	95	151	50
Ehiza jardunaldi kop.	2.027	1.731	1.775	1.390	1.228	905	1.073	1.532	1.413	860	852	839	630	918	1.173	18.346	1.223	2.027	630
Ehizatutakoak	281	329	217	238	118	102	280	478	251	153	87	152	93	140	142	3.061	204	478	87
Ehizatuak/ehiztariko, denboraldi osoan	1,86	2,51	1,75	2,38	1,26	1,24	2,75	3,32	2,35	2,28	1,43	2,71	1,86	2,00	1,73	2,18	2,10	3,32	1,24
Ehizatuak/ jardunaldiko	0,14	0,19	0,12	0,17	0,10	0,11	0,26	0,31	0,18	0,18	0,10	0,18	0,15	0,15	0,12	0,17	0,16	0,31	0,10
Ehiztari aktibo kop./100 HA	7,71	6,69	6,33	5,11	4,80	4,19	5,21	7,35	5,46	3,42	3,12	2,86	2,55	3,58	4,19	71,66	4,84	7,71	2,55
Ehiza jardunaldi kop./100 HA	103,52	88,41	90,65	70,99	62,72	46,22	54,80	78,24	72,17	43,92	43,51	42,85	32,18	46,88	59,91	936,98	62,47	103,52	32,18
Ehizatutakoak/100 HA	14,35	16,80	11,08	12,16	6,03	5,21	14,30	24,41	12,82	7,81	4,44	7,76	4,75	7,15	7,25	156,33	10,42	24,41	4,44

LEITZARAN


- Azalera totala (ha): 3.036
- Oilagor ehizarako azalera potentziala (ha): 2.973



Denboraldia	10/11	11/12	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23	23/24	24/25	TOTAL	PROMEDIO	MAX	MIN
Ehiztari aktibo kop.	160	131	127	139	116	49	160	97	147	124	128	187	149	129	90	1.932	129	187	49
Ehiza jardunaldi kop.	361	298	282	366	289	88	369	289	337	292	351	441	246	361	497	4.867	324	497	88
Ehizatutakoak	89	102	81	143	94	29	175	115	131	151	88	221	90	160	105	1.774	118	221	29
Ehizatuak/ehiztariko, denboraldi osoan	0,56	0,78	0,64	1,03	0,81	0,59	1,09	1,19	0,89	1,22	0,69	1,18	0,60	1,24	1,17	0,92	0,91	1,24	0,56
Ehizatuak/ jardunaldiko	0,25	0,34	0,29	0,39	0,33	0,33	0,47	0,40	0,39	0,52	0,25	0,50	0,37	0,44	0,21	0,36	0,36	0,52	0,21
Ehiztari aktibo kop./100 HA	5,38	4,41	4,27	4,68	3,90	1,65	5,38	3,26	4,95	4,17	4,31	6,29	5,01	4,34	3,03	64,99	4,34	6,29	1,65
Ehiza jardunaldi kop./100 HA	12,14	10,02	9,49	12,31	9,72	2,96	12,41	9,72	11,34	9,82	11,81	14,84	8,28	12,14	16,72	163,73	10,92	16,72	2,96
Ehizatutakoak/100 HA	2,99	3,43	2,72	4,81	3,16	0,98	5,89	3,87	4,41	5,08	2,96	7,43	3,03	5,38	3,53	59,68	3,98	7,43	0,98

PARZONERIA


- Azalera totala (ha): 2.340
- Oilagor ehizarako azalera potentziala (ha): 1.917



Denboraldia	14/15	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23	23/24	24/25	TOTAL	PROMEDIO	MAX	MIN
Ehiztari aktibo kop.	84	44	78	77	82	69	67	77	69	47	47	741	67	84	44
Ehiza jardunaldi kop.	700	463	738	653	706	606	603	623	465	444	497	6.498	591	738	444
Ehizatutakoak	132	116	181	192	143	141	122	246	76	56	115	1.520	138	246	56
Ehizatuak/ehiztariko, denboraldi osoan	1,57	2,64	2,32	2,49	1,74	2,04	1,82	3,19	1,10	1,19	2,45	2,05	2,05	3,19	1,10
Ehizatuak/ jardunaldiko	0,19	0,25	0,25	0,29	0,20	0,23	0,20	0,39	0,16	0,13	0,23	0,23	0,23	0,39	0,13
Ehiztari aktibo kop./100 HA	4,38	2,29	4,07	4,02	4,28	3,60	3,49	4,02	3,60	2,45	2,45	38,65	3,51	4,38	2,29
Ehiza jardunaldi kop./100 HA	36,51	24,15	38,49	34,06	36,82	31,61	31,45	32,49	24,25	23,16	25,92	338,91	30,81	38,49	23,16
Ehizatutakoak/100 HA	6,88	6,05	9,44	10,01	7,46	7,35	6,36	12,83	3,96	2,92	6,00	79,28	7,21	12,83	2,92

ERNIO-GAZUME

- Azalera totala (ha): 2.159
- Oilagor ehizarako azalera potentziala (ha): 1.560



Denboraldia	10/11	11/12	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23	23/24	24/25	TOTAL	PROMEDIO	MAX	MIN
Ehiztari aktibo kop.	163	130	137	102	84	95	112	181	126	103	84	73	70	97	144	1.667	113	181	70
Ehiza jardunaldi kop.	2.064	1.436	1.577	1.146	1.210	1.187	1.630	1.887	1.874	1.356	1.237	1.167	749	1.439	1.824	21.783	1.452	2.064	749
Ehizatutakoak	362	376	278	312	155	200	400	575	291	222	207	279	120	239	225	4.241	283	575	120
Ehizatuak/ehiztariko, denboraldi osoan	2,22	2,89	2,03	3,06	1,85	2,11	3,57	3,18	2,31	2,16	2,46	3,82	1,71	2,46	1,56	2,54	2,49	3,82	1,56
Ehizatuak/ jardunaldiko	0,18	0,26	0,18	0,27	0,13	0,17	0,25	0,30	0,16	0,16	0,17	0,24	0,16	0,17	0,12	0,19	0,19	0,30	0,12
Ehiztari aktibo kop./100 HA	10,45	8,34	8,78	6,54	5,39	6,09	7,18	11,61	8,08	6,60	5,39	4,68	4,49	6,22	9,23	106,88	7,27	11,61	4,49
Ehiza jardunaldi kop./100 HA	132,34	92,07	101,11	73,48	77,58	76,11	104,51	120,99	120,15	86,94	79,31	74,82	48,02	92,26	116,95	1.396,65	93,11	132,34	48,02
Ehizatutakoak/100 HA	23,21	24,11	17,82	20,00	9,94	12,82	25,65	36,87	18,66	14,23	13,27	17,89	7,69	15,32	14,43	271,92	18,13	36,87	7,69